

Ongi etorri euskarara!

Ongi etorri Leintz Udal Euskaltegira!



1997-98 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA
maila guztiak

Ikastaro bereziak

Merkatari, langile eta gurasoei egokitutakoak

Erritmo ezberdinak

Ordutegi zabala
Bekatzeko sistema
16 urtetik gorakoentzat

Bulego ordutegia

Goizez: 09.00-12.30 / Arratsaldez: 15.00-19.00

Matrikulaldia

Irailaren 1etik 22ra arte

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Durana, 11
ARETXABALETA
Tel.: 79 21 68

Fernando Enparantza
ESKORIATZA



UDAL
EUSKALTEGIAK



HIZKUNTZAK-IDIOMAS

“Hizkuntza bat gehiago, muga bat gutxiago”

97/98 Ikasturtea

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

Alemana, Frantsesa eta Ingelesa.
Haur, gazte eta helduentzako klaseak
eta orain ere “MULTIMEDIA” Sistema eskaintzen dizuegu

Informazioa:

Araba Etorbidea, 4 Arrasate

Telf: 71 20 55

Olakua, 14 Oñati

Telf: 71 60 00



Igartzen da irailleko aldapa?

Arrate Narbaiza

(Etxekoandrea)

Oraindik ez, erosketa batzuk egin ditut, baina oraindik ez dut astirik izan igartzeko.


Aurreratzen hastea oso zaila da, ia ezinezkoa, umeez gastu handia dute irailan.



Lorenzo Bernal

(Langilea)

Bai, igartzen da. Udan asko gastatzen da eta gero irailan igarri egiten da hori. Hala ere, aurreratzea oso zaila da.



Argentina Gonzalez

(Etxekoandrea)


Bai, asko igartzen da irailleko aldapa, oporretan asko gastatzen da eta. Aurreratzea denoi gustatzen zaigu, baina beti daude gastuak, eskolarako liburuak, erropak...



Emilio Rosado

(Jubilatua)

Jakina igartzen dena. Jendeak oporretan asko gastatzen du eta gero aurreratu nahi izaten du. Gaur egungo gizartean ezin da asko aurreratu, diruak hegaz egiten du.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxagazeta

Aretxagazeta aldizkariak egun erdirako pertsona bat kontratatu nahi du.

Eskatzen diren baldintzak:

- Euskera ongi menperatzea (EGA).
- Gutxienez diplomatu mailako ikasketak.

Baloratuko da:

- Kazetaritza eta publizitate arloan ikasketak eta esperientzia.
- Argazkigintza eta informatika erabiltze-mailan ezagutzea.
- Aretxabaleta eta bertako hizkuntza ezagutzea.

Hobesten da:

- B1 motako gidatzeko baimena.

Kurrikuluma irailaren 26a baino lehenago Aretxagazetara (Kultur etxea) ekarri beharko da edo 151 Postakutxatilara bidali.

Kontratua sei hilabeterako izango da hasieran, luzatzeko aukerarekin.

Aretxabaletan 1997ko irailaren 11n.

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Maria Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorbarrutia. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Arantzazu Zuazabeitia, Inma Miguel, Loramendi E. E., kultura saila, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.
Azala: "Gran Atlas Histórico del Mundo Vasco" (18. zka.)



Euskaldunontzat ez dago justiziarik

Sei gazte Bergaran epaituak izan dira justizia euskalduna aldarrikatzeagatik. E.H.E.eko kide hauek justizia arloan euskarak jasotzen duen tratua salatu asmoz, erdara hutsez egiten ari zen epaiketa bat eten zuten. Leporatutako falta arinak epaitu behar ziren irailan eta aurreko jarrera bera mantendu zuten, oraingoan epaileak atxilotzeko agindua eman eta delituzkotzat jo zuten euren jarrera.

Administrazioko arlo ezberdinetan euskarak duen presentzia apala baldin bada ere, justiziaren arloan sinbolikoa izatera ez da iristen. Edozein tramitazio, dokumentu, epaiketa, zitazio... erderaz egiten da halabeharrez, baldintza "gehiegi" eman behar baitira euskaraz egiteko. Bestalde, epaiketen kasuan hainbatek itzultzaileen figura "arazoa"-ren irtenbide bezala planteatzen dute. Hala ere, honek ez du "arazoa" konpontzen; epaileak, fiskalak, idazkariak... duten gabezia ezkutatzeko besterik ez du balio. Azken finean, euskaldunen hizkuntz eskubideak ez errespetatuaz, gure herrian arrotz bezala tratatuak izatea dakar eta epaiketan itzulia izan behar duenaren indefentsio egoera (itzultzaileak diotenaren arabera izango baita epaitua).

Justizia pertsona zein giza taldeen eskubideak bermatzen dituen balorea baldin bada eta legeak berriz hauek sustatu eta gauzatzeko bitarteko eta neurriak, legeak tokian tokiko ezaugarri sozio-kulturaletan oinarrituak egon beharko lirake. Hau da, bertako izaera, ikusmoldea, lurraldea, hizkuntza e.a.-etan errotuak egon behar dute. Horrela ez bada (Euskal Herrian gertatzen den bezala) jatorrizko herriaren eskubideak ukatu egiten dira eta justizia injustizia bihurtzen da, giza talde bati bere bizi-iraupenaren inguruan erabakitzeke eskubidea ukatzen baitzaio.

Guztion lana da justizia administraziora zuzentzen garen bakoitzean euskaraz jardutea, 6 gazte hauen konpremezua ez dadin alperrikakoa izan.

Berriz ere euskara epaitu nahi izan dute baina ez dute euskaraz epaitu nahi izan. Non daude euskaldunon hizkuntz eskubideak?

Epaketan egon ziren atxabaltar batzuk.

Kepa Urraren torturatzaillei epaiketa

Bost urte pasatu behar izan dira Kepa Urria atxabaltarraren atxilotetan parte hartu zuten Guardia Zibila tortura delituagatik Bilboko audientzian beraien erantzunkizunagatik epaituak izateko. 1992ko urtarrilak 29an Basaurin hasi ziren ekintzak. ONUk garatutako txosten baten arabera, atxilotu ostean eta Bilboko La Salveko kuartelera eraman aurretik, ordu betez Kepak tratu txarrak jasan zituen. Ondorioz, zortzi ordu beranduago ospitalizatua izan zen Basurton. Bertan, amenazu gehiago jasan zuen eta hauek erizain batek entzuniko laguntza oihuei esker eragotziak izan ziren.

Gertaera larri hauek ikusita, Europako zenbait erakunde eta Suitzako Amnistia Internazionalerako delegatuak informe sozial bat burutu zuten. Era berean, Bilboko epaileek diligentsia batzuk zabaldu zituzten. Ekintza hauek, El Pais-en (1994-02-12) "Macabra danza enmascarada" bezala argitaratuak eta Eusko Jaurlaritzako Barne Sailburua den Juan Maria Atutxa "Jaunak" burututako operazio paregabea" bezala definituak izan ziren. Hau dela eta, 5 urte eta gero, hainbat Guardia Zibilek epailearen aurrean erantzun beharra izango du.

Argi dago, lehen komunikabideek tortura hauek ixildu eta beraien erara moldatu zituzten bezala, oraingoan ere beraientzat ez dela kaleratzeko bezain berri interesgarria izango. Era berean, partidu politiko demokratiko deiturikoen eta talde bakezale izanaren atzean daudenek ez dituzte giza eskubideen aurkako atentatuztat jotzen Euskal Preso Politiko bati eginiko torturak.

Ixildu zuten, ixildu dute eta ixilduko dute, baina jakin bezate, horrenbeste aldarrikatzen duten baketik gero eta gehiago urruntzen direla, beraien jarrera hipokritek ezeztatzen duten arren.

Kepari gure babesa eskaini eta torturaren praktikak salatzeke, mobilizazio ezberdinak antolatu dira. Atxabaltar guztioi ondorengo mobilizazio hauetan parte hartzea dei egiten dizuegu:

- Epaiketa egunetan (22, 23, 24) kontzentrazioak Bilboko audientzian.
- Enkartzeladak hilaren 22, 23 eta 24an arratsaldeko 7,30etan eta zapaturo.
- Demokraten ixiltasunaren aurrean epaiketari buruzko informazioaren zabaltzea.
- Hilak 20, zapatua, manifestazioa 7,30etan.

TORTURARIK EZ! PRESOK EUSKAL HERRIRA!

Aretxabaletako Amnistiaren aldeko komitea.

kindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-
Tfnoa: 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

ESKORIATZA

Tfno 714345

**Bazkari
eta
afariak**

MENDIOLA

Astelehenetan itxita



ESKORIATZA

Postalen lehiaketa

Gehienontzat behintzat oporrak bukatu direnez, agindutako moduan Aretxagazetara bidalitako postalen zozketa egin genuen. Postal saritua **Arantzazu Fernandez de Arroiabek** bidalitakoa izan da. Arantzazuk Irlandatik bidali zigun postala eta Irlandako esaera bitxi honekin agurtzen gintuen bertatik: "Ez dago norberaren bizilekua bezalakorik", postala, jakina, irlanderas idatzirik zegoen. Zenbat lagunen ahotan ibilitako esaera izango ete da hau!


Postal hori bidaltzeagatik larruzko motxila polit bat jaso du Arantzazuk. Irlandatik etorri berria da eta ostera ere joateko moduan dela esan digu motxila berriarekin.

Dana dala, beste postal pilo bat ere jaso ditugu eta guztiei eskerrik asko opor hauetan Aretxagazeta aldizkariatz gogoratu zaretelako. Beste noizpait ere zain izango gaituzue.



Arantzazu Fernandez de Arroiabe motxila eskuetan duela

Aretxagazetak ere urrun bidaiatu du opor hauetan zehar. Aldameneko argazki bitxia Kenian aterata dago. Bertan Masai tribuko bi kide Aretxagazeta aldizkaria irakurtzen ari dira. Interes handia azaltzen dute. Zeozer ulertuko ete zuten, horixe da ez dakiguna. Batek daki. Argazkia Felis eta Mirarik atera zuten beren ezkon bidaietan.



LASAGABASTER


Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

• JUANTXO URDAITEGIA	79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	79 31 59
• ARAMAIO OKINDEGIA	79 64 87
• LEINTZ-ROSI	79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	79 96 43

Vitoria-Gasteiz-Eibar autopistariren proiektua herritarrentzat ikusgai dago udaletxean



Aretxabaletan trazatuak izango duen ibilbidea

Udaletxeak Foru Aldundiak bialdutako Vitoria-Gasteiz-Eibar autopistaren trazatuaren proiektuak jaso ditu eta publikora zabalik egongo dira irailaren 30a arte. Herritarrak hirigintzako bulegora zuzendu beharko dira trazatua ikusi edo eta autopistaren inguruko informazioa nahi izanez gero.

Autopistaren proiektua hiru zatitan banatuta dago. Lehenengo zatia, Etxebarritik (Araba) Eskoriatza iparraldera doana da. Proiektu hau Euroestudios S.A. enpresak garatu du eta zatirik luzeena da 24,13 km.tako luzeraz. Bigarren zatia, Eskoriatzatik Bergara hegoalderainoko (10,3 Km.) ibilbidea egiten du. Fulkrum enpresa arduratu da zati honen

proiektua egiteaz.

Azkenik, Bergara hegoaldetik Maltzagara (11,70 Km.) dagoen trazatua Prointec S.A. enpresak burutu du.

Aretxabaletari dagokion autopistaren ibilbidea honako hau da: Eskoriatzatik datorren trazatua Landeta eta Antxustegi baserrien erditik pasatzen da. Ondoren Apotzaetxebarriko maldetan zehar jarraituko du: hasierako zatiak trintxeran eta gainontzeko zatiak tunelean. Aipatutako tunela San Blas ermitaren azpikaldetik igaroko da.

Untzilarako bidearen ezkerrean kanpora irtengo du. Zati honetan Egileor baserriaren gainetik eta mendebaldetik jarraituko du bidezubi baten bidez. Bidezubi honek

Untzilara doan bidearen bi aldeak elkartuko ditu.

Izurieta auzoaren azpikaldean tunelean jarraituko du trazatuak, Izurietako hegoaldeko maldan irtetzen duelarik. Hemendik Arbizelai baserria zegoen lekura arte jarraituko du.

Aretxabaletako azkenengo zatian, autopistak Arrasatera doan bidea eta bariantea goikaldetik zeharkatuko ditu bidezubi baten bidez eta bariantearen ezkerrealdetik jarraituko du.

Aretxabaletatik gertuen dauden autopista-lotuneak, Eskoriatzan eta Arrasaten daude. Lehen Fagor Ederlanen parean kokatzen da eta bigarrena Arrasateko Kataide industrialdearen inguruan.

EGUZKIGRAF
inprimategia

ARETXABAETA

Industrialdea 1-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABAETA

Kepa Urrea ustez torturatu zuten guardia zibilen aurkako epaiketa irailaren 22an hasiko da Bilbon


Kepa Urrea ustez torturatu zuten sei guardia zibilen aurkako epaiketa hil honen 22, 23 eta 24an egingo da Bizkaiako entzutegian. Epaiketan 70 lekukok deklaratu dutela espero da, Kepa Urraren lesioen jatorria argitzeko asmoz.

Gogoratu Kepa Urrea atxabaltarra 1992ko urtarrilaren 29an atxilotu zutela, Bizkaia komandoko ustezko beste hainbat kide eta kolaboratzaileekin batera. Torturak atxilotu zuten eta erietxean ere jarraitu zutela salatu zuen Amnistiaren aldeko batzordeak.

Nazio Batuen Elkarte (NBE) Giza Eskubideen Batzordeak kasua aztertzeko bi ordezkari berezi bidali ondoren, 1993ko txosten ofizialan

salatu zuen Urraren tortura kasua, eta beste horrenbeste egin zuen Amnesty International (AI) elkar-
teak urteroko txostenean.

Aretxabaletako Amnistiaren aldeko komiteak, bestalde, hainbat mobilizazio ekintza antolatu ditu hilaren 20, 22, 23 eta 24rako.



Ludoteka irailaren 15ean zabalduko da

Oporrak pasatu ondoren ludoteka noiz zabalduko zain egongo dira umeak. Ikasturte berriarekin batera, Loramendi E. elkarteak irailaren 15ean, zabalduko du ludoteka.

4 urtetik 12ra bitarteko umeek parte hartu ahal izango dute bertan eta aurreko urteetan moduan adin

tarte bakoitzak bere ordutegia izango du. Horretarako ludotekako bazkide izatea beharrezkoa izango da.

Iazko urtean 129 bazkide izan zituen ludotekak. Aurten ere beste horrenbeste eta gehiago izatea espero da. Gainera berrikuntzarik ere egongo da, erropa zaharrak bildu eta umeek mozorrotzeko aukera izango dute.

Beraz, aurten ere ludotekako bazkide egin nahi duzuen ume guztiok bertatik pasa beharko duzue irailaren 15etik aurrera. Urteko kuota 1000 pta.koa da.



Giacomo Rossini orkestraren bisita

Uztailean nagusien akordeoi orkestrakoak Italian izan ziren eta astebukaera honetan Italiako Santa Giustinako Giacomo Rossini orkestra izango da gure artean.

Bost egun igaroko dituzte hemen eta tarte horretan Azatzako aterpetxean lo egingo dute.

Hilaren 13an zapatua, goizeko 11,30etan ongietorria egingo zaie udaletxean. Arratsaldean, berriz, meza ostean, kontzertua eskainiko dute parrokan.

Kontzertuak emateaz gain, Euskal Herria ezagutzeko aukera ere izango dute: Loiolako Santutegia, Donostia...

Matrikulazio epea zabalik dago musika eskolan

Irailaren 8an zabaldu zen matrikulazio epea musika eskolan, ordutegia 5etatik 6etara bitartekoa da.

Irailaren 11 eta 12an, bestalde, klaseen ordutegiak zeintzuk izango diren zehaztuko da eta horretarako 5etatik 7etara pasatu ahal izango da musika eskolatik. Ikasleentzako klaseak, berriz, irailaren 15ean hasiko dira.

Aurten, aurreko urteetako instrumentuez gain bibolina ere erakutsiko da. Hori dela eta, irailaren 16an bibolin-entzunaldia egongo da musika eskolan arratsaldeko 6etan. Honez gain, ikasturte honetan, musikako ikasgai gehigarriak ere emango dira.

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

Iber

✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2
Tfnoa: 79 79 24

Marti

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33

Azatzako auzolandegia

Lana eginez elkar ezagutu eta ondo pasatzeko aukera

Abuztuaren 18tik 31era bitartean 17 laguneko taldea egon da Azatzako aterpetxean Gaztekutxak antolatuko auzolandegian. 18-19 urte bitarteko gazte hauek urtegiaren inguruko ibilbide desberdinak seinalizatu dituzte eta baita Orkatzategin dauden trikuharriak ere. Gipuzkoa osotik etorritako neska-mutilek gure inguruko balore naturalak ezagutzeko aukera izan dute, beti ere, talde lan baten barruan eta euren arteko erlazioak sakonduz.

“Oso esperientzia polita izan da”, entzun dezakegu Azatzako aterpetxean egon diren taldekideen ahotik. Ez da gutxiagorako, naturarekin lotutako ekintzekin beteta izan dute egitaraua. Goizak elkarlanean pasatu dituzte; ibilbide batean zehar egurrezko seinaleak jartzeko zuloak eginez eta Orkatzategiko trikuharriak garbitu eta seinalizatu. Arratsaldetan, berriz, Aranzadi Zientzi Elkarteke espezialista-talde batekin hainbat irteera egin dituzte: leize, geologia, landaretza, aztarnategi arkeologiko, ohiturak, etab. aztertuz.

Esperientzia honen berri izateko Juantxo Agirre Gaztekutxako koordinatzaileaz eta German Sanchez begiraleetarikoko bateaz egon gara.

• Zergatik antolatu zenuten auzolandegi hau?

Juantxo Agirre: Bi arrazoiengatik. Alde batetik inguruan dauden natur baloreengatik: Orkatzategiko trikuharriak esaterako eta beste aldetik Aretxabaletako Udalak zeukan interesagatik. Geroztik Aranzadi zientzi elkarteak bere proiektua egin zuen: batetik Orkatzategin zeuden trikuharriak nola zeuden begiratzea eta seinalizatzea, eta bestetik, ibilbide baten oinarria eta seinalizazioa.

“**Trikuharri gehienak orain 17 urte aurkitu ziren eta denek batera Orkatzategiko megalitotegia osatzen dute**”

• Zein ezaugarri dituzte trikuharri hauek?

J: Duela 4.000 urte inguruko tumuloak dira, harri multzoak. Ezagutzen diren lehen kanposantuak direnez, gure arbasoak ezagutzeko bide izan daitezke. Horregatik, bi helburu izan du trikuharrien seinalizazioak: dibulгатiboa eta babesarena.

Gipuzkoa osoan ia 300 trikuharri daude. Txikiak dira eta ez daukate Araba eta Nafarroan daudenekin zerikusirik. Batzuk nahiko deseginda daudenez jende askorentzat



Juantxo Agirre Gaztekutxako koordinatzailea eta German Sanchez auzolandegiko begiraleetarikoko bat.

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Tfnoa: 79 20 64

**AMETS
TABERNA**

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

PAGALDAI
Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

ARGAZKI

UrKiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

ezezagunak dira.

• **Seinalizazio hauekin herri-tarrek Orkatzategin dauden trikuharriak ezagutzeko aukera izango dute orduan?**

J: Bai, jakina, jendeak orain artean begibistan izan duena baina ezagutzen ez zuena ikusteko aukera izango du. Gainera irailean trikuharriak ikusteko irteera bat antolatuko da eta proiektio txiki bat botako da.

Orkatzategin dauden trikuharri gehienak Oñatiko lurretan daude baina ibilbidea hemendik dago. Trikuharri gehienak orain 17 urte aurkitu ziren eta denek batera megalitotegi bat osatzen dute: Orkatzategiko megalitotegia. Bost trikuharri seinalizatu dira: Urtapotolueta I eta II, Aitzgain, Linatza eta Urtao. Bakoitzak identifikazio plaka bat du alde-menean.

• **German, zer moduzko esperientzia izan da?**

German Sanchez (begiralea): Oso polita. Oso ondo pasatu dugu. Gipuzkoa osoko lagunak batu gara hemen: Azkoitia, Donostia, Legorreta, Ondarribi, Oiartzun, Zarautz, Zestua, Eibar... Guztiz esperientzia erakargarria da, goizetan lan egin behar izan dugu baina ez zaigu gogorra egin. Lana aitzakia hartuta elkar ezagutzeko eta ondo pasatzeko aukera zoragarria izan da. Goiza lanean eman ondoren arratsaldetan hainbat gai landu ditugu: etnografia, karstologia, entomologia, geologia, arkeologia, astronomia, etab. Gure inguruan dauden hainbat balore ezagutzeko aukera zoragarria izan da.

• **Nola antolatuta dago auzolandegia?**



Auzolandegian parte hartu duen taldea

“Lana aitzakia hartuta elkar ezagutzeko eta ondo pasatzeko aukera zoragarria izan da”.

“Irailean egurrezko seinaleak jarriko dira Urkulu inguruan, honez gain, trikuharriak ikusteko irteera bat antolatuko da Orkatzategira proiektio txiki batekin batera”

G: Bi sukaldari, bi begirale eta Aranzadiko bi teknikari daude. Begiraleok etxeko eta taldearen funtzionamenduz arduratu gara: otorduak, mahaiak jaso, ontziak garbitu, logelak eta komunak garbitu, etab. Aranzadiko teknikariak, berriz, goizeko lanaz arduratu dira.

• **Zein lan egin dituzue?**

G: Trikuharrietako lanari dago-kionez, trikuharri bakoitzari plaka bat jarri diogu alde-menean bere ezaugarriekin. Bestetik, ibilbidearen hainbat lekutan zuloak egin ditugu PVCko hodiak sartuz. Irailean egurrezko seinaleak sartuko dira beraietan. Egurrezko seinale hauek paisaiarekin bat datoz.



**TABERNA-BERRI
JATETXEA**

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA

1497-1997:

Leintz Bailarak 500 urte Gipuzkoan

Orain dela 500 urte, 1497ko irailaren 16an, Gipuzkoako Batzar Nagusiak bidalitako bi komisarioek, Leintz Bailarako mugarrien azterketa zertu ondoren, Gipuzkoako Hermandadeari egindako azken atxikimenduak jaso zituzten. Horrela amaitu zen Leintz Bailarak Gipuzkoan sartzeko eragindako prozesua. Prozesu hau, bestalde, leintztarrek helburu nagusizat zuten ekintzarekin lotu behar dugu, Gebaratarren menpetik ateratzeko borroka luzearekin, alegia.

Leintz Bailara Gebaratarren menpe (1370-1556)

Latza eta luzea dugu gure arbasoek orain dela 500 urte burutu zuten bidea. Izan ere, Gipuzkoako Hermandadea ehun urte lehenago, 1397ko uztailaren 6an, eratu zen, baina Gaztelako errege Enrike II.ak 1370ean gure Bailara (egungo Eskoriatza eta Aretxabaletako udalerrriak eta Bedoña auzoa) Beltran de Guevara-ri utzi ziola eta, leintz-tarrak Gipuzkoako Hermandadetik kanpo gelditu ziren.

Gebarako jauntxoekiko zuten menpekotasun egoera hau izango da, hain zuzen, leintztarrek Gipuzkoako Hermandadean sartzeko aurkituko duten oztoporik haundiena. Ez dugu ahaztu behar Hermandadea Gipuzkoako hiribilduek sortutako erakundea zela eta XV. mende odoltsu hartan (gogoan izan Oinaz eta Ganboatarren arteko borrokak) Ahaide Nagusien gehiegikeri eta bidegabekeriei aurre egitea eta, aldi berean, monarkiaren interesak defendatzea zituela helburu. Horrexegatik, garbi ikusi zuten leintztarrek Hermandadean sartzekak Gebaratarren mendetik askatzea ekar lezakeela. Baina



Udaletxe zaharreko armarrria, gaur egun Udal euskaltegia. Bertan, Gaztela, Leon, Gipuzkoa eta Leintz Bailarako armarririk elkarturik azaltzen dira, Hausburgotarren arranoaren babesean.

Gebaratarrak, garai hartan inguruko noblerik nagusienak, gogor eutsi zioten 1370. urtean Gaztelako erregearengandik jasotako mesedeari. Egoera honen ondorioz, Leintz Bailara ez da 1556ko irailaren 16ra arte Gebaratarrengandik askatuko.

Leintztarren ahaleginak eta arrazoiak

Bide honetan asko izan ziren Leintz Bailarak Gipuzkoan sartzeko egindako ahaleginak. Baina, Ahaide Nagusien indarkeria batzuetan eta beste batzuetan erregearen ahulezia edo Hermandadearen zalantzak (1477an Gebaratarrek Leintz Bailara Arabako Hermandadeetan sartu zutelako, Gipuzkoako Batzar Nagusiak ez zuten leintztarren eskaera onartu) zirela eta, 1497ko apirilaren 29ra arte ez zuten Gipuzkoako Batzar Nagusiak leintztarrek hainbeste aldiz eskatutakoa onartu. Aipa-

tutako egun horretan Usarragako Batzar Berezian bildutako prokuradoreek ontzat jo zituzten Leintz Bailaren ordezkarien argudioak eta Hermandadearen arautegia eman zieten leintztarrek Probintzian sartzeko zer egin behar zuten jakin zezaten.

Gure Bailarak erabilitako arrazoiei dagokienez, hiru izan zirela esan daiteke: lehena, Leintz Bailara gaizkileen babesleku ezagunak ziren Oñati eta Aramaio lurralde pribilejiatuen artean kokaturik egotea; bigarrena, legez Gipuzkoako eta ez Arabako Hermandadeetako partaide izatea, 1477an Probintziako Batzar Nagusiak, Oñatiko kontea zen Iñigo de Gevara-ren aurka joanez, Leintz Bailara eta Gatzaga Gipuzkoako Hermandadean hartu baitzituen; eta hirugarrena, garrantzitsuena, Gaztelako erregeek emandako aginduak.

Arazoi hauek kontutan harturik

Gipuzkoako Batzar Nagusiak, Errege Katolikoan aginduei jarraituz, onartu egin zuten leintz-tarren eskaera eta Bailarak bete beharko zituen arauak eman zizkien Leintzeko ordezkariari, hauen hurrengo egin beharrak leintz-tar guztiei arautegi horren kapituluak azaltzea eta Gipuzkoarekin hitzarmena sinatzeko beraien onarpena lortzea izanik.

Azken urratsak: Erregeen agindutik Bailarako mugarrin ikustaldira

Lan erraza zirudien azken honak, baina ez zen horrela suertatu. Izan ere, Leintzeko prokuradoreak Gipuzkoako Batzar Nagusiekin adostutako arautegia Batzarrean ziren leintz-tarrei azaltzen zebiltzala, Oñatiko kontearen edo Bailarako Ahaide Nagusi batzuren aldeko hogeiren bat lagun azaldu omen ziren bildutakoak Hermandadearen aurka altzarazteko asmoz.

Gipuzkoako Batzar Nagusiak ez zuten denbora alferrik galdu nahi eta Errege Katolikoengana jo zuten. Hau horrela, Erregeek idatzi erabakikorra bidali zieten leintz-tarrei Gipuzkoako Hermandadean lehenbailehen sar zitezela aginduz.

Azken arazo hauek gainditu ondoren, 1497ko abuztuaren 25ean egin zen Bailararen Batzarra Aretxabaletako Plazan. Batzar honetan Bailarako Prokuradore Nagusia zen Juan Lopez de Galarzak Erregeen aginteak eta Hermandadearen arautegia betetzea eskatu zien bildutakoari. Hala gertatu zen. 1497ko abuztu eta irailean zehar leintz-tarrek baietz esan zioten Prokuradore Nagusiak eskatutakoari, betekizun horretarako Gipuzkoako Batzar Nagusiak Bailarara bidalitako bi komisarioen aurrean zin eginez. 257 izen-abizenak azaltzen dira ekintza hau jasotzen duen agirian, eta izen horiekin batera Bailarako auzoak, elizateak (egungo Areantza, "parro-

chia de Çalgo" izenez azaltzen da), baserriak eta ogibide batzuk ere bai: errementari (5), zapatagin (7), harakin (2), eskribau (3), bizargin (4), jostun (2), tormulari (1), ehungile (1), arotza (1).


Prozesu burokratiko honen azken urratsak 1497ko irailean eman ziren: Hileko 14an Pedro de Sardaneta, Mendiola elizatekoa, Hermandadeko Alkate (Epaile) izendatu zuten Batzar Nagusiko komisarioek. Probintziarekin hitzartutako agiriaren arabera Leintz Bailarak eta Gatzagak eremu judizial bakarra osatuko dute, Hermandadeko Alkate berbera edukiz (bi urtez jarraian Bailarak izendatuko du eta hirugarren urtean Gatzagak).

Hurrengo bi egunetan, 1497ko irailaren 15 eta 16an, Batzar Nagusiko komisarioek eta Leintzeko ordezkariak Bailararen mugarririk ikuskatu zituzten, beharrezkoa baitzen hermandadeko Alkatearen jardunaldea ondo zehaztea. Ikustaldia Bailararen ekialdetik mendebaldera zertu zen: Ostoron gainetik Aumamendira eta handik, Andarto, Linatza eta Gorordomenditik zehar Andamarizurira abiatu ziren ikuskariak; gero, Bedoñatik, Deba ibaia zeharkatuz, Untzillarantz joteko, hemendik Aramaioko mugatik Ostorora itzuliz.

Esan bezala, 1497ko irailaren 16an Batzar Nagusiaren ordezkariak amaiera eman zioten beren egitekoari. Gipuzkoan onartua, gure bailara prest egongo da beste auzi luze bati aurre egiteko: urte bereko uztailaren 21ean Juan de Galarzak, Bailarako Prokuradoreak, demanda bat aurkeztuko du Valladolideko kantzelaritzan "Oñatiko kontea eta Leintz Bailarako Jauna" tituluak zituen On Iñigo de Gevara-ren aurka, gure Bailaran zuen eskumena legez kontrakoa zela salatuz.

Inaki Urreta Leturiondo

Gaztelako errege Enrike II.ak 1370ean gure Bailara (egungo Eskoriatza eta Aretxabaletako udalerriak eta Bedoña) Beltran de Guevara-ri utzi zion



1497ko apirilaren 17an Donostian egindako Gipuzkoako Batzar Nagusiko aktaren hasiera

Dorleta-Dorleta VII. klasika ospatuko da datorren domekan



Aretxabaletako zikloturista taldeak antolatuta Dorleta-Dorleta VII. klasika ospatuko da irailaren 14an. Dorletako Ama, txirrindularien zaindaria dela kontutan izanik, zikloturistek klasika berezi hau antolatu izan dute azken zazpi urte hauetatik hona.

Euskal Herriko hainbat herritako zikloturistak bildu izan dira egun



Klasika bukatzen duten guztiei Dorletako Ama Birginaren trofeoa oparituko zaie

honetan, 100 lagunetik gora beti. Iaz esaterako 180 lagunek hartu zuten parte. Partehartzaileen aldetik arrakastatsua izaten da klasika hau eta aurten ere horrela izatea espero dute antolatzaileek.

Klasika, bestalde, goizeko 9etan hasiko da Dorletako santutegian. Ibilbideak 117 km. izango ditu, tartean txirrindulariek, Kanpazar, Elgeta, Arlaban eta Gatzaga igo beharko dituzte. Ibilbide gogor samarra dela kontutan izanik, ibilbidearen erdi inguruan txirrindulariak Aretxabaletatik pasatzen direnean, partenoï parean indarrak hartzeko antolatzaileek ipinitako zenbait jaki jateko aukera izango da.

Klasika bukatzean partehartzaileek Dorletako Ama Birginaren trofeo zoragarria jasoko dute opari gisa.

Inskripzio fitxa Aretxabaletako zikloturista taldera bidali beharko da, 196 postakutxatilara, inskripzioa egitean 1.500 pta ordainduz.

Mantenimendu eta jubilatuentzako gimnasia


Aurreko urteetan moduan mantenimendu eta jubilatuentzako gimnasia klaseak emango dira kiroletxean. Mantenimendu gimnasia astelehen, eguazten eta eguakotxetan emango da goize-tan 9,15etatik 10,15etara. Egun beretan baina 10,30etatik 11,30etara jubilatuei zuzendutakoa izango da. Arratsaldetan ere, mantenimenduko gimnasia klaseak egongo dira, kasu honetan, astelehen, eguazten eta eguenetan, 5,30etatik 6,30etara eta 6,30etatik 7,30etara. Apuntatzeko izena kiroletxean eman daiteke. Informazio gehiago 79 64 61 telefonoan.

Igeri eta aquagym ikastaroak

Kiroletxeko igerilekuan egingo diren igeriketa eta aquagym ikastaroetarako apuntatzeko epea zabalik dago. Ikastaro bakoitzerako 15 lagun inguruko taldea sortzen denean hasiko dira ikastaroak. Informazio gehiago nahi izanez gero, kiroletxera jo daiteke. (Pedro).

 **KIOLDENDA**
Egunero kirolelako moda, beti ere aurreneko marketan
Esko Sport
 Intxaurtxueta, 5 ☎ 71 52 Larunbat arratsaldetan zabalik

MEMESA S.L.
Industriaren alde
 Santa Kurtz, 25-27
 Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

 **Zenbaki**
Aholkularitza

JOSU HARATEGIA
 Urdaitegia-Gozotegia kroasantegia
 Janari prestatuak
 Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

 **ARGI-PLASTIC**
 Leihoak egiten dira
 Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta
 Tfnoak: 79 88 75
 79 75 99

Ligako lehenengo partiduan 5-0 nagusitu zitzaion UDA Euskalduna taldeari

Hiru bajen artean, entrenatzaile eta fitxaketa berriak eta lehenengo erregionaletik igotako jokalaria gazteak izango dira taldeko berrikuntzak



UDAKo jokalaria
entrenamendu batean

Aurrendenboraldiaren ondoren ligako lehenengo partiduan emaitza positiboa lortu zuen joan den asteburua preferente taldeak. UDA 5-0 nagusitu zitzaion Euskalduna taldeari. Golegileak, Luengo, Arana, Buceta eta Ingidua (2) izan ziren. Joko polita erakutsi zuen etxeko taldeak eta partiduan zehar eurak izan ziren nagusi.

Aurrendenboraldiari dagokionez, hasiera polita erakutsi du taldeak. Jokaturako hiru partiduetan, bi garaipen eta berdinketa bat lortu ditu. Gasteizko Bruno Villareal taldearen aurka esaterako, binako berdinketa lortu zuen. Iban Buceta eta Asier Larrea Gasteiztik etorritako jokalaria berriak izan ziren goletzailak.

Hurrengo partiduan Mondra taldea izan zuen aurrez-aurre. Kasu honetan Jon Ander Larrinagak sartutako golari esker garaipena lortu zuten.

Azkenik, bergararren kontrako partiduan ere UDA 3-1eko emaitzaz nagusitu zen. Partidu honetan Xabi Idigorasek gol bi sartu zituen eta hiru-


garrena Asier Larreak.

Taldeko berrikuntzak

Entrenatzaile berriaz gain taldea ere berritua agertzen zaigu 97-98 denboraldirako. Alde batetik, Bittor Mugika iazko entrenatzailea Alberto Perezek ordezkaturko du. Bestalde, jokalariei dagokionez, hiru baja izango dira: Kerman Sagasta, Luis Mari Madinabeitia eta Tito Etxeandia. Jokalaria berrien artean, Gasteiztik ekarritako hiru jokalaria gazte daude: Iñaki Castillo, Iban Buceta eta Asier Larrea. Azken bi hauek oso joko ona erakutsi zuten Euskaldunaren aurkako partiduan.

Hauetz gain, lehenengo erregional mailatik igotakoak, Xabi Idigoras, Xabi lasagabaster, Egoitz Garai eta Mikel del Rio dira. Iker Agirrek iaz Bergarako taldean ibilitakoak ere UDAn jarraituko du.

Taldeko atezainak, berriz, hiru izango dira: Igor Unamuno eta Xabi eta Zigor Lasagabaster anaiak.



Alberto Perez

UDAKo entrenatzaile berria

Alberto Perez UDAKo preferente taldeko entrenatzaile berria da. Arrasateko taldean jokatu zuen preferente maila arte eta ondoren entrenatzaile lanari ekin zion. Pedrusko izan zuen lehenengo taldea, ondoren beste hainbat talde ere zuzendu du: orain bi urte esaterako UDAKo lehenengo erregionalerako taldea.

• Zer iruditzen zaizu aurrengo plantila?

Jokalaria asko dago. Plantila gaztea da, beterano batzuk joan dira eta gazte asko dago, lasaitasun handiz hartuko dut. Nola erantzuten duten ikusi behar da. Talde polita egongo da beterano eta berrien artean.

• Aurrendenboraldiko partidua nola joan dira?

Hiru partidu jokatu ditugu eta bi irabazi eta bestea berdindu egin dugu. Orain artekoak probak dira eta garrantzitsuena liga da. Hasi besterik ez gara egin.

Ezkutu
TABERNA

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 79 92 01

Izozkitekigozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA



MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76



“Hontzen irudien bilduma egiten dut eta neurri guztietako hontzak dauzkat etxean”

Zubia zapata dendan lan egiten du Bikene Zubiak. Oso denda zaharra da Zubia zapata denda, 1947. urtekoa hain zuzen ere. Lehenagoko denda oraingoaren parean zegoen, baserri batean.

- **Nolakoa da zapataria lana?**
Beste lan denetan moduan hemen ere ikasten joan beharra dago, esperientziak asko ikasten da, larru motak, materiale motak...
- **Zertan aldatu dira zapatak garai batetik ona?**
Gero eta kolore, barietate eta narru

mota gehiago dago.

- **Iraileko aldapa igartzen da?**
Ez gehiegi.
- **Beharpenetan jende gehiago etortzen da?**
Bai, baina nik uste dut betiko antzerria.
- **Zelako zapatak datoz negurako?**
Zapata itxiak eta botin itxurakoak. Ez datoz oso bota altuak.
- **Zapatak ala zapatilak dituzu gurago?**
Zapatak.
- **Zer da Aretxabaletatik gehien gustatzen zaizuna?**
Portasol, ni bizi naizen lekua.

- **Nora egin duzu azken bidaia?**
Inglaterrara.
- **Amestutako lanbidea?**
Eskaparartista.
- **Egunkaria, irratia ala telebista?**
Gehien irratia entzuten dut. Egunkaria ez dut irakurtzen eta telebista afalostean ikusten dut normalean.
- **Arraina ala okela?**
Okela.
- **Datorren domekan baduzu**

Kurtzebarri egunera joateko asmorik?

- Ez dut pentsatu ere egin.*
- **Mundu honetan nor miresten duzu?**
Bakearen alde egiten duen edonor.
 - **Sinistuna zara?**
Bai.
 - **Zer gosaltzen duzu?**
Esnea zerealekin.
 - **Nor ezagutzea gustatuko litzazuke?**
Oskorri taldeko partaideak.
 - **Optimista ala pesimista zara?**
Erdi eta erdi.
 - **Zerk ematen dizkizu burukomina?**
Biajanteek.
 - **Afal ostean zer egiteko ohitura duzu?**
Fregaua, tokatzen bazait eta telebista ikusi.
 - **Zeintzuk dira zure afizioak?**
“Punto cruz”a.
 - **Nola apainduta daukazu etxea?**
Hontzen irudien bilduma egiten dut eta neurri guztietako hontzak dauzkat etxean.

EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroia



IRIARTE

Umeen denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
ARETXABALETA

Artano Taberna

Herriko Plaza
ARETXABALETA

IZOTZ Taberna

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65
Aretxabaleta



G

ure herrian betidanik egon da katurako afizioa. Urte askotan zehar Aretxabaletako abesbatzak alaitu izan ditu guztion barruak. Baina banakako abeslari onak ere ezagutu ditugu. Argazkia, Juan Jose Garciaetxabe eta Cristobal Altuberi 1.946. urteko abuztuaren 18an egin zitzaizen omenaldikoa dugu. Katurako afizio haundikoak ziren, adin berekoak eta tenorrak biak. Omenaldiko egun honetan poltsikoko erloju bana jaso zuten bi omenduek.

Juan Jose Garciaetxabe gizon alaia eta airosoa zen eta beti aurkitzen zuen katurako tarterik, elizan ez bazen lanean edo etxean, lagunartean... han eta hemen kantuan sarri entzun zitekeen Juan Jose Garciaetxabe.

Cristobal Altube (Txindurri) 1898-06-10--1951-05-17, musikari ezaguna bihurtu zen. Gaztetan, Peñakuluko maldetan artzain ibilitakoa, soldaduzka egitera Madrileran joan eta bertan katurako zuen trebetasuna ikusirik, musikako ikasketak burutu zituen. Azken hauek Italian amaitu zituen. Geroztik, opera ezagunetan kantatu zuen, Italian, Bilboko Arriagan, Palma de Mallorcan... Aretxabaletan denbora gutxi egin zuen Altubek, Madrilen bizi izan baitzen bere heriotza arte. Bere azken urtean Madrileko kontserbatorioko zuzendaria izan zen, 1951. urteko maiatzaren 17an hil zen 53 urte zituela.

Aretxabaletara urtean behin etortzen zen, Andramaixetan. Fraka eta zapata txuri eta sonbrero eleganteaz egiten zuen bere jaioterrira bisita. Gizon dotorea zen. Gaur egun bere monumentua (1.973. urteko irailaren 30ean jarria) Andra Mari auzoan aurkitzen da, Jose Arrue musiko eta frantziskotarrenarekin batera.

Argazkian mahaiari jarrita daudenak ezkerretik eskumara: **Don Angel parrokoa, Juan Jose Garciaetxabe, Eustakio Alkorta (alkatea), Cristobal Altube, Toribio Elkoro.**

Atzekaldean ikusten diren batzuk: **Inaxio eta Pedro Galdos, Sabino Zuazabeitia, Maximo Lasagabaster, Jesus Urkia (Sebitas)...**

Argazkia: Marisol Altuna

Informazioa: Duni Zuazabeitia
Eduardo Altube

PIENSO SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

BASTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN

ARETXABALETA

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58

Irailean kurtso berria...



eta egunkari berria. Hori da behintzat nire belarrietara heldu den notizia. Itxura baten egunkaria Deba Bailaran zabalduko ei da eta euskaraz eta erderaz izango da. Ez dakit bataren eta bestearen tratamendua nolakoa izango den baina beldur naiz ez ei den betikoa gertatuko, ETB eta beste hainbat lekutan bezala. Dana dala, ikusi barik ezin jakin, ez dugu ordea asko itxaron beharko, hile honetan bertan plazaratuko da eta. Medioetako kontuekin jarraituz aipatu behar da **Unai Loidi** udazkenean hasiko den ETBko "Hitzetik hortzera" bertso saion hasi dela lanean, baina ez bertsotan erredakzio lanetan baino.

Gehienok jakingo duzue azkenengo boladan gure inguruan turismoa bultzatzeko hainbat ahalegin egin dela. Kontuak kontu, turismoari bultzada bat emateko **Ana Eriz** atxabaltarra hartu dute Mankomunitateko Turismo Ekintzetarako Zentroan. Bertakoak ez dute

ziurtatu baina Larrino eta Urkuluko inguruak ondo ezagutzen dituelako hartu duten susmoa daukat.

Turismoa egiten ez baina akordeoia jotzera dator oraingo astebukaera honetan **Italiako Giacomo Rossini akordeoi orkestra**. Dana dala, suposatzen dut turismo apurren bat egingo dutela "gastronomikoa" besterik ez bada.

Turistak ez ziren izango baina japonesak izan dituzte bisitan Arientzan bertako jaixetan eta pozik ibili dira eskuan, kopia, zigarro-puroa eta argazki makina zutela.

Jaiak zirela eta hainbat txapelketa ospatu zen astebukaeran Arientzan. Bertako hirugarren kartel lehiaketa **Gorka Uriartek** irabazi zuen, bigarren **Igor Larrañaga** eta hirugarren **Resu Abasolo** gelditu ziren. Garaiz jakin ez nuelako, bestela...

Txarri harrapaketan konpetentzi gogorra egon zen. Azkenean irabazleak **Josu Urkia** eta **Igor Larrañaga** bikotea batetik eta **Egoitz Garai** eta **Aimar Leibar** bestetik izan ziren. Txarriari sakurako bidea erakutsi ziotela esango nuke. Azkenik bertako Aro txapelketa tradizionalen irabazlea **Xabier Abasolo** izan zen. Kriston punteria erakutsi zuen eta bertan NBAko "ojeadoreak" egon balira honezkero EEBBko bidean zen.

Nola dakidan guzti hau... ba... bertan egon nintzelako, San Migeletarako gertatzen. Ah! eta ez ahaztu datorren domekan Kurtzebarri eguna ospatzen dela eta badakizue garbitu botak.

A R E T X A Z O K A

LANA

- Kurtzebarri eskolak soinketa erritmikorako irakasle bat behar du. Harremanetarako deitu 79 00 49 telefonora.

ETXEBIZITZA

- 160 m²ko pabiloi industrialak alokatzen da, Aretxabaletako Basabe poligonoan, interesatuak deitu honako telefono honetara: 79 28 41-79 74 37.
- Burgosen pisua osatzeko ikaslea behar da. Janari eta etxeko lanak egiteko pertsona bat daukagu. Harremanetarako: 79 51 10 (Saioa) / 79 28 05 Onintza.

- Ikasleentzako etxebizitza alokatzen da. Santa Kurtz kalea. Guztiz hornitua. 79 47 07 (5etatik aurrera).

- Irailetik aurrera neska bat pentsio osoan hartuko duen familia behar da. Ikaslea. 79 74 73.

- Garajea salgai edo alokagai dago Lezama zentruan. Harremanetarako deitu: 79 68 35.

- Aretxabaletan ileapain-degi mixtoa alokagai dago. Solariuma eta edertze aretoa ditu. Lokal argia da. Herriaren erdian. 60 m²koa. Instalazio guztiak ditu eta funtzionamenduan. 77 12 70-79 94 39.

DENETARIK

- Renault 5 bat saltzeko daukat. ITVa pasatuta dauka datorren ekainetarrate. Prezioa: 75.000 pta. Tfnoa: 79 78 37.

- Dibortziatu, banandu eta alargun taldeak, (Deba Garai eta Behean), geure taldea haunditu nahi genuke. Interesatuak idatzi Bergarako 284 posta kutxatilara.

- Remolkea salgai. JB-150 modeloa. Soporte eta aldatzeko erruerekin. Berria da, ezin izan dugu erabili. Oso prezio egokia. 79 81 78.

- 4/5 plazatako karabana erosiko genuke. Tfnoa: 79 77 85.


- Siberiar husky txakurkumeak salgai. Pedigree bikainekoak eta prezio ezin hobean. Tfnoa: 79 59 85. (Anagatik galdetu).

- Kanping denda salgai. 3 logela, sarrera eta aterpea. Harremanetarako deitu 77 11 45 telefonora.

- Behar ez duzun ordenagailuren bat baldin baduzu deitu Saretxora. Tfnoa: 79 10 51-79 01 05.




HITZ GEZIDUNAK

		*Izena	...izan, gai izan	Eraso	Binoko multzotan
		Aufki besodun	Hezur-mota	H ₂ O	Pedro
		1/4			
		Eliza, hitz elkarketan		Haur hizk., musu	
				Koefiziente-mota	
Bazkal-ondoa	Nafarroako ibaiak	Azalen laburrak			
Lerro-sinaloa	Roentgen	Lehena, bi aldiz			
		Bakala	Kanpo		Austriako autoetan
		*Deitura	Etsipenezko aldia		Aurpegiko irekidura
Kontonantea	Gazte bihurtua				Denbora
Eguzkia	Idatzitakoa ulertu				
		Denbora libre			Merkurioa
					Kebide-zinkeria
Ez eme	Eta	Oihaneak			K
Uhina		Urania			
			Bal	Bakala	Kontonantea
			Oxigenoa	Luxemburgoko autoetan	Barrea
Gollika		Lo-kulaxka			D
Ipar, mozt		Nirea			
		Bakarka herria	50	...izan, ihardun	A
		Erdi, hitz-elkarketan	Bete	Bukaturia amaieran	R
Garraiabi-de-mala		Lerdeak			
Berrira onartua		Kantsonanteak			Italiako autoetan
					Bigarrena
					Tona
Gizonezko Gurasoa		Interjekzioa		Zentakia	

HABE

JEROGLIFIKOA



HABE

* Soluzioak
18. orrialdean

Nolakoa duzu ama?

**KIXKOR
TABERNA**

Mitarte 13 ☎ 79 20 60
Aretxabaleta

**Aretxabaletako
industrialdea, S.A.**

“ARINSA”

Basabe poligonoa “EO-10”
Tfnua: 79 62 80
ARETXABALETA

Aretxagazeta

**Zure
publizitatea
hemen
79 01 05**

**Liburutegiko
txokoa**



Ilargia ditarean
Patxi Zubizarreta - Jokin Mitxelena
Elkar, 1996
Miru, 10

Ilargia ditarean (atzamarrean sartuta orratza bultzatzeko balio duen tresna) nola sartu asmakizunaren inguruan osatzen du Zubizarretak bere azken lan hau. Zortzi urtetik aurrera irakurtzeko moduko liburua da, hiru ataletako egitura sinplea duena eta ohiko ipuin tradizionalak gogora ekartzen dituena.

Zer erakutsia ere badu liburu honek, diruzaletasunaren kritika eginez besteak beste. Dena dela ipuin ederra duzu hau, Jaun batek bere ondasun guztiak galdu ditu jokoan bere semeei asmatu ezinezko asmakizun bat luzatuz bere lotsa ezaltzeko, eta bukatu arte ez duzu jakingo nola sartu ilargia ditarean, hala bai?

Joseba Lopez de Armentia

Ikastaroak

**BEINKE-LORAMENDI
DANTZA IKASTAROA**

Loramendi Euskera Elkarteko Tril emakume taldekoek Beinke-Loramendi dantza herrikoia erakusteko ikastaroa antolatu dute. Irailaren 8an hasi eta San Migel jaiak artean iraungo du ikastaroak. Dantza San Migel jaietako zapatuan dantzatuko da, irailaren 27an. Astelehen eta ostiraletan arratsaldeko 7,30etatik aurrera emango da. Entsaia nahi dutenek bertan agertzea besterik ez dute. Berri gehiago Loramendi elkartearen edo 77 09 70 telefonoan.

AEROBIC IKASTAROA

Irailaren 8an hasi zen aerobic ikastaroa. Klaseak ohiko orduetan izango dira eta irakaslea Pili Muñagorri. Informazio gehiago edo eta apuntatzeko 79 80 54 telefonoan egin daiteke.

**IGERI ETA AQUAGYM
IKASTAROA**

Informazioa kiroletxean 79 64 61 (Pedro).

**Kurtzebarri
eguna**

Irailaren 14an izango da. Meza 11,30etan, trikitilariak, salda eta txanpaina emango dira tontorrean Murruxio M. E.aren eskutik.

**YOGA IKASTAROA**

Irailaren 23an hasiko da. Astearte eta ostegunetan goizeko 9etatik 10,30etara eta arratsaldetan 5etatik 6,30etara. Murubideko lokalean izango da. Izen ematea 79 88 53 telefonoan, Enkarna Mendez.

Lehiaketak

“ARRASATE 97”**LEHIAKETAK**

Arrasateko AED elkarteak honako lehiaketak antolatu ditu: **Komikia**, **Eskualdeko euskararen testigantza (eskualdeko euskararen egindako magnetofoi-grabaketa)**, **antzerkigintza**, **ikus-entzunezko komunikabideetarako gidoia**.

Aipatutako lehiaketak euskaraz izan beharko dira. Lanak urriaren 31 baino lehenago bidali beharko dira AED elkartera. “Arrasate 97” lehiaketak/Pablo Uranga kalea, 4 behea 20.500 Arrasate. Informazio gehiago AED 77 12 28.

**BEHARREZKO
TELEFONOAK****Aretxabaleta**

• Almen	71 49 64
• Aretxagazeta	79 01 05
• Basotxo	77 09 81
• Euskaltegia	79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Kiroletxea	79 64 61
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Liburutegia	79 10 00
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Ludoteka	79 05 81
• Murruxio M.E.	79 93 74
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Osasun zentroa	79 74 58
• Otalora	79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Postetxea	79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Urats Gain	79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	79 53 00
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Renfe (Gasteiz)	23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• SOS Deiak	088
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA**ITURGINTZA**

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Truke Operazioa



grupo
Amuebladora
Mondragonesa

Zure ametsak trukatzen ditugu



Ekar ezazu
koltxoi zaharra...



eta 10.000 Pta. arte

deskontatuko

10.000 Pta.


dizugu zure atsedeen

sistema berrian

FLEX

Eskeintzen dizugu

Amets zoriontsuak



Prezio hoberenean



Centro Hogar Muebles
Zigarrola, 1 ARRASATE

grupo



Amuebladora
Mondragonesa



a.eme. interiores
Garibai, 1 ARRASATE